



EBAZPENA, 2019ko ekainaren 19koa, Plangintza eta Antolaketako zuzendariarena eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako edo Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetan 2019-2020 ikasturterako ekintza guztiak burutzeko zenbat irakasle beharko diren eta dotazioak nola banatu behar diren zehazteko irizpideak arautzekoa.

2016. urtean, EHAAAn argitaratu ziren **237/2015 Dekretua**, Haur Hezkuntzako; **236/2015 Dekretua**, Lehen Hezkuntzako, eta **127/2016 Dekretua**, Batxilergoakoa, Heziberri 2020 planaren barruan sortutako “Hezkuntza Eredu Pedagogikoaren Markoaren” araugintza-garapen gisa.

Halaber, duela urte batzuk, Lanbide Heziketak kompetentzietan oinarritutako curriculum-garapena ezarri zuen. Bertan kompetentzia teknikoak zein zeharkakoak lantzen dira.

Bai hezkuntza eredu pedagogikoa bai garatzen duen curriculum-araudia kompetentzietan oinarritutako ikuspegi pedagogikoarekin bat datoz. Oinarrizko kompetentzia guztiak, zeharkakoak zein diziplina barrukoak, etapa bakoitzaren bukaeran ikasleek lortu behar duten irteera profilararen osagai ezinbestekoak dira.

Hezkuntza sistemaren ardura da ikasleei hezkuntza integrala eskaintzea ikasle guzti-guztiak ahalik eta gehien gara ditzaten irteera profila osatzen duten kompetentzia guzti-guztiak. Planteamendu berri horrek ezinbestean dakar ezagutzen transmisio soilean oinarritutako hezkuntza tradizionalaren eredua gainditzea. Denborak eta espazioak non eredu berria garatzen den, errebisatu eta egokitu behar dira hezkuntza ez-formal eta informalen esparruak sartu ahal izateko gure ikasleen formazioaren zati garrantzitsu gisa. Eta beste aldetik, ezin dugu ahaztu kompetentzietan oinarritutako ikuspegia gelara eramateak aldaketa metodologikoa dakarrela. Aldaketa horrek zuzeneko eragina dauka irakaskuntza-jardueran eta oso aldaketa garrantzitsuak eragiten ditu irakasleen rolean.

Hezkuntza-eredu pedagogikoaren garapenerako irakasleen rola giltzarri da. Bere zeregina funtsezkoa da eta ezin da mugatu ikasgai bati lotutako kontzeptuen transmisio hutsari. Hori dela eta, zehaztasun handiagoarekin definitu beharko ditugu zeintzuk diren irakasle batek ikasleekin hartu-eman zuzenean garatu beharreko jarduerak. Hemendik aurrera irakasleek ikasleekin hartu-eman zuzenean egiten duten eta oinarrizko kompetentzien garapenaren bitartez ikasleen irteera profila lortzea azken helburu duen jarduera multzoari “irakaskuntza-dedikazioa” deituko diogu.

Irakasleek era aktiboan lagundu behar dute, ikasle guztiak aurrera egiten jarrai dezaten ezarritako ikaskuntza-emaitzak lortzeko. Irakaslea ikasleekin harremanetan dagoen espazio eta denbora guztiak egokitu behar ditugu, oinarrizko gaitasunak (zeharkakoak nahiz pertsonalak) lantzen jarrai ditzan. Hezkuntza-arretaren eginkizun honetan, guardiako irakasleek erraztailearen edo bitartekariaren, gidariaren edo laguntzailearen papera izan behar dute, eta, eginkizun horretan, ikasleen oinarrizko kompetentziak lantzen jarraitu behar da, Heziberri 2020 Planeko hezkuntza-eredu pedagogikoak eta hori garatzen duten Dekretuek jasotzen duten eran.



Lanbide Heziketari dagokionez, 2018ko uztailaren 5ean argitaratu zen **4/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa**. Lege horren bigarren xedapen gehigarrian, Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuan Espezializatutako Ikastetxeen Euskal Sareko ikastetxeetako irakasleen lanpostuak betetzeari buruzkoan, arautzen denez, Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuan Espezializatutako Ikastetxeen Euskal Sarekoak diren Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak irakasleez hornitzeko orduan, berariaz hartuko da kontuan zer beharrian espezifiko dauden lanbide-heziketako eredu konbinatua garatzeko. Horren ildotik, ikastetxeek, beren hezkuntza-proiektuak aintzat hartuta, eska dezakete honako hauek egitea ikastetxeko lanpostu jakin batzuetan:

- a. Titulazio eta lanbide-gaitasunari buruzko baldintzak ikastetxearen lanpostu-zerrendan sartzea.
- b. Hainbat titulu eta lanbide-gaitasun merezimendu gisa baloratzea lanpostuak betetzeko prozeduretan.
- c. Lanpostuan aritu behar duenaren betebeharrak gisa ezartzea honako hau: birziklatze-jardueretan parte hartzea, lanpostuari esleitutako funtzioak behar bezala egiteko gaitasun iraunkorra izan dezan.

Halaber, xedatzen denez, erregelamendu bidez, behar diren neurriak hartuko dira ikastetxe publikoetako gobernu-organismoek lanpostuak betetzeko prozesuan parte har dezaten.

Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa eta berori garatzen duten eta curriculumari buruzko dekretuak kontuan izanik, Hezkuntza Sailak, ebazpen honen bidez, irizpideak arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako edo Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetan 2019-2020 ikasturterako dotazioak zehazteko.

1.- Eremua eta helburua.

Ebazpen hau honako hauei aplikatuko zaie: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa edo Heziketa Zikloak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei.

Ebazpen honek aurreko paragrafoan aipatutako ikastetxeetarako 2019-2020 ikasturterako irakasleen dotazioak zehaztu nahi ditu, zenbat beharko diren eta nola banatu.

2.- Egutegia.

Irakasle-hornidurek 2019-2020 ikasturtean ikastetxeek izango dituzten irakaskuntzen eta bestelako jardueren egoerari erantzun beharko diote, eta aurreikus daitezkeen gorabehera guztien isla jaso beharko dute. Horregatik 2019-2020 ikasturteko matrikula egin ondoren zehaztuko dira, ikastetxe bakoitzean dauden ikasle eta taldeen behin betiko azken kopurua, euren mailak eta hizkuntza-ereduak aintzat hartuta.



3.- Lanpostu motak.

Lanpostuak mota hauetan sailkatuko dira;

- Bigarren Hezkuntzako eta Berriazko Lanbide-Heziketako espezialitate arruntetako lanpostuak.
- Hezkuntza-Orientabideko lanpostuak
- Curriculum Aniztasuneko lanpostuak
- Zereginen Ikaskuntzako lanpostuak
- Zuzendaritzari Laguntza Emateko lanpostuak
- Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuko lanpostuak
- Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratuko lanpostuak
- Eibarko Egoitza-Zentroko “Iharduerak” espezialitateko lanpostuak

4.- Bigarren Hezkuntzako espezialitate arruntetako lanpostuak

4.1.- **Irakaskuntza-dedikazioaren ordu-kopurua** Irakasleen irakaskuntza-dedikazioa 20 ordukoa izango da, ikasleekin hartu-eman zuzena ekarriko du eta oinarritzko konpetentzien garapenaren bitartez, zeharkakoak zein diziplina barrukoak, ikasleen irteera profila lortzea izango du helburu.

Espezialitate arruntetako lanpostuen definiziorako ordu-kopuru metagarria honakoek osatuta egongo da:

- Curriculumaren irakaskuntza. Ikastetxeko 2019-2020 ikasturteko eskola-ordu erreal guztiak, tutoretza-, banaketa- eta errefortzu-orduak barne, batzean lortzen den ordu-kopuru arrunta.
- Enplegurako prestakuntza orduak, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak onartu dituenak.
- Irakaskuntza-dedikazioaren beste ordu kopurua: 2019-2020 ikasturtean dagoena. Ordu-kopuru hori honakoek sortua da: zuzendaritzako kargudunen murriztapenek, hezkuntza-kudeaketarako orduak, berrikuntza-proiektuek, hizkuntza normalizatzeko proiektuek, Europako programek, hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentziorako proiektuek, Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzak eta/edo Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzak berriaz baimenduriko bestelako murriztapenek.



Ordu-kopuru arrunta kalkulatzeko, honako arauak erabiliko dira:

4.1.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa banatzea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasturteetako bakoitzean, ikasle-kopuruaren eta ikasturte eta hizkuntza-eredu bateko talde-kopuruaren arteko zatiketaren emaitza 20 edo handiagoa bada, ikastetxeari Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza astean curriculumaren irakaskuntzarako hiru ordu eta Batxilergoan astean bi ordu gehiago emango zaizkio dagokion ikasturte eta hizkuntza-ereduko taldeetako bakoitzeko. Ikastetxeak ikasleari zuzeneko arreta egiteko erabiliko ditu ordu horiek: hezkuntza-errefortzuko eskolak emateko eta/edo banatutako taldeetan eskolak emateko.

4.1.2.- Curriculumaren irakaskuntzako orduak Lanbide Heziketan.

Ordu-kopuruaren esleipena ebazpen honen I. eranskinean dago ezarrita dago Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babesean ezarritako heziketa-zikloetarako eta Hezkuntzari buruzko (LOE) maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean ezarritako heziketa-zikloetarako, III. eranskinean aipatzen diren irizpideetarako.

A. Heziketa Ziklo bakoitzean zenbatu daitekeen irakaskuntza-orduen gehieneko kopurua hurrengo apartatuen baturaren emaitza izango da:

- a) Heziketa-zikloko moduluetan **zuzenean emandako** irakastorduak (“oinarria/base” zutabea).
- b) Heziketa-zikloko irakasleen espezialitate batzuetan **irakasleei laguntzeko orduak, (Kreditu Orokorra KO)**, betiere prozeduren zailtasuna eta arriskuak (“K.O./C.G.” zutabea) kontuan hartuta, III. eranskinean azaltzen diren irizpideen arabera.

Kreditu Orokorreko orduak esleitzeko (KO), taldeetan dagoen ikasle-kopurua kontuan hartuko da: Kreditu Orokorra aplikatuko da, soilik, ikasle-kopurua 20 edo gehiago denean, eta zuzeneko irakaskuntzarako erabiliko da.

- c) **Enpresetako prestakuntza kudeatzeko eta tutoretza-lana egiteko** orduak: Txandakako Lanbide Heziketa duala eta/edo Lantokiko Prestakuntza modulua (LP) kudeatzeko eta horietan tutoretza-lana egiteko, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak kontuan hartuko du Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak zentroari esleitu dion ordutegi orokorra eta tutoreen artean banatuko du.



Talde bakoitzarentzat honako kontzeptu hauek batu eta esleituko dira:

- Txandakako Lanbide Heziketa Dualeko ikasle bakoitzagatik: 1,2 ordu astean, baina gehienez ere 10 ordu izan ditzake talde bakoitzak.
- Lantokiko Prestakuntzako (LP arrunta) ikasle bakoitzagatik: 0,4 ordu astean, baina gehienez ere 5 ordu izan ditzake talde bakoitzak.

Bigarren mailako talde batek LPko eta Dualeko ikasleak dituenean, 15 ordu izan ditzake, gehienez, kontzeptu horretan.

- d) **Enplegurako prestakuntzari** emandako orduak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ikastetxe bakoitzari egindako kudeatzeko gomendioaren arabera Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak esleitutakoak.

- B. Ordu esleipena, dagokion departamentuaren berezko zereginak kudeatzeko (aktibo eta errekursoen inguruko jarduerak eta funtzioak) eta/edo Heziketa Zikloko irakaskuntza indartzeko eta/edo ikastetxeak egiten dituen beste kudeaketa- eta zerbitzu-zereginetarako, irizpide hauen arabera:

- 5 ordu lanbide-familia guztien lehen ziklorako.
- 1,5 ordu hurrengoetarako (beste ziklo batzuetarako).

- C. Ordu-kreditua, hizkuntza-ereduen arabera

Taldeak eratzeko irizpideei jarraikiz, erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetarako, horiei buruzko ebazpenaren 4. puntuan jasotzen direnetarako, ikastetxeko lanpostuen hizkuntza-irizpideak zehazteko ordu-kreditu hau zenbatuko da:

A eredia

I. edo II. eranskineko “oinarria / base” zutabean zikloari esleitutako ordu guztiak 1. LHn zenbatuko dira, 20 ikasle edo gehiago direnean salbu; izan ere, orduan Kreditu Orokorreko orduak zenbatuko dira derrigortasun-datarik gabeko 1. LHn.

D eredia

I. edo II. eranskineko “oinarria / base” zutabean zikloari esleitutako ordu guztiak 2. LHn zenbatuko dira, 20 ikasle edo gehiago direnean salbu; izan ere, orduan “oinarria base” zutabeko orduak eta Kreditu Orokorreko orduak zenbatuko dira derrigortasun-datarik gabeko 2. LHn.

**B eredia:**

- a) I. edo II. eranskineko “oinarria / base” zutabean zikloari esleitutako ordu guztiak, ken B zutabeko orduak, derrigortasun-datarik gabeko 1. LHn zenbatuko dira.
- b) Aipatutako eranskinetako B zutabean zehaztutakoa 2. LHn zenbatuko da.

B eredia, 20-25 ikaslerekin:

- a) I. edo II. eranskineko “oinarria / base” zutabean zikloari esleitutako ordu guztiak, ken B zutabeko orduak, derrigortasun-datarik gabeko 1. LHn zenbatuko dira.
- b) Aipatutako eranskinetako B zutabean zehaztutakoa 2. LHn zenbatuko da.
- c) Kreditu Orokorreko orduak 1.LHrako zenbaten dira moduluak gaztelaniaz ematen badira, eta, euskaraz ematen badira, 2. LHrako.

B+ eredia:

- a) I. edo II. eranskineko “oinarria / base” zutabean zikloari esleitutako ordu guztiak derrigortasun-datarik gabeko 1. LHn zenbatuko dira.
- b) Aipatutako eranskinetako B zutabean zehaztutakoa 2. LHn zenbatuko da.
- c) Kreditu Orokorra zutabea ez da zenbatuko B + eredu horretan.

4.1.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako orduak

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzarenak, bere zazpigarren xedapen gehigarrian ezarri duenez, maisu-maistren kidegoko irakasleek haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan beteko dituzte beren funtzioak, eta Bigarren Hezkuntzako katedradunen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko irakasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan beteko dituzte beren funtzioak.

Lege horren lehen xedapen iragankorrak, dena den, honako hau ezarri du: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen bi kurtsoetako lanpostuei behin betiko atxikitako maisu-maistren kidegoko funtzionarioek denbora mugagabeen jarraitu ahal izango dute lanpostu horietan, eta beren mugikortasuna baliatu ahal izango dute hezkuntza-administrazio bakoitzak finkatzen dituen lanpostu hutsei dagokienez.



Aurreko bi printzipioak betez, hurrengo arauak ezarri dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen bi maileri dagozkien curriculumaren irakaskuntzako orduak banatzeari dagokionez:

a) DBHko lehen bi kurtsoetako lanpostuek, baldin eta otsailaren 12ko 20/2019 Dekretuaren bidez onartutako maisu-maistren LPZn badaude eta behin betiko destinoa duten maisu-maistrek betetzen badituzte, hurrengo ikasturteko ordu aski izanez gero, maisu-maistrei esleitzen jarraituko dute.

Behin betiko destinoa duen maisu-maistra batek betetako lehen bi kurtsoetako plaza batek ordu aski baduela ulertuko da, baldin eta curriculumaren irakaskuntzako 17 ordu esleitu ahal bazaizkio, honako hauek kontabilizatuz: bere espezialitateko curriculumaren irakaskuntzako orduak, dagokion maisu-maistrak, gaikuntza edo habilitazioa dela eta, eman ditzakeen beste espezialitate batzuetako curriculumaren irakaskuntzako orduak, eta curriculumaren irakaskuntzari lotuta ez dauden orduak, tutoretzagatik edo murrizketengatik, horietarako eskubiderik izanez gero, edozein arrazoi dela eta: zuzendaritza-kargua, berrikuntza-proiektuak, hizkuntza-normalizazioa, eta abar.

Horretarako, DBHko lehen bi kurtsoetako plaza batean behin betiko destinoa duen maisu-maistra bakoitzari honako hauek esleitu zaizkio: lehenik eta behin, lehen bi kurtsoetako orduak, bere espezialitateari dagozkionak, eta dagozkion curriculumaren irakaskuntzari lotuta ez dauden orduak; eta bigarrenik, plaza osatzeko behar izanez gero, beste espezialitate batzuetan soberan geratu diren lehen bi kurtsoetako orduak ere; betiere, eragindako irakasleak espezialitate hori emateko gaikuntza edo habilitazioa baldin badu.

Ondorio horietarako, betetzen duten lanpostuko gai edo alorrez bestelakoak esleitu ahal izango zaizkie maisu-maistren kidegoko irakasleei, betiere, dagokien gaikuntza edo habilitazioa baldin badute, otsailaren 13ko 35/1996 Dekretuak (EHAA, 96-02-15) bere 4.1 artikuluan ezarri duenaren arabera.

b) Ikastetxean behin betiko destinoa duten maisu-maistren plazak eratzeko erabili ez diren lehen bi kurtsoetako orduekin, berriz, honela jokatu da.

1.- Lehenik eta behin, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoari pasatuko zaizkio, besterik gabe, dagokion espezialitateko edo kidegoren bateko plazaren batean, ikastetxean bertan, behin betiko destinoa duen aipatutako kidegoko irakasleren baten plaza kentzea edo irakasle hori lekuz aldaraztea saihesteko behar diren ordu guztiak.

2.- Ondoren, aztertuko da ea oraindik esleitu gabe dauden orduak aski diren dagokion espezialitateko lehen bi kurtsoetako plaza oso bat eratzeko, espezialitate ezberdinetakoak batu gabe. Ondorio horretarako, honako hau ulertuko da: plaza bat osatzeko espezialitate-orduen gutxienezko kopurua 17 ordu dela (curriculumaren irakaskuntzako 16 ordu eta tutoretza ordu 1). Irizpide hori aplikatuz, berriz, honela jokatu da:



- Curriculumaren irakaskuntzako gutxiengoa izan, eta beraz, lehen bi kurtsoetako plaza oso bat eratzeko aukera ematen duten espezialitateetan, maisu-maistrei esleituko zaie plaza hori, plaza hutsak eduki ahal izateko, Bigarren Hezkuntzako plazetan atxikitako maisu-maistrak mugikortasun-eskubidez baliatu ahal izan daitezten.

- Oraindik soberan dauden orduak curriculumaren irakaskuntzako gutxiengo kopurura iristen ez diren espezialitateetan, aldiz, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoari pasatuko zaizkio dauden ordu horiek, dagokion espezialitateko aipatutako kidegoko irakasleek eman ditzaten.

c) Aurreko arauen salbuespenak baimendu ahal izango ditu tokian tokiko Ikastetxe eta Plangintzaren Lurralde Burutzak, ikastetxeko zuzendaritzak idatziz eskatu ondoren. Eskaria behar bezala justifikatu beharko da, eta eragindako sail edo departamentuei jakinaraziko zaie alde zuzenetik, eta ez die kalterik eragingo ikastetxean behin betiko destinoa duen inongo irakasleren eskubideei.

4.2.- Ikastetxean espezialitate arruntetan guztira zenbat irakasle izango diren zehaztea.

Ikastetxean espezialitate arruntetan guztira zenbat irakasle izango diren honela zehaztuko da:

- Ordu kopuru metagarria kalkulatu da, honela: curriculumaren irakaskuntzako orduak, tutoretzako orduak eta irakaskuntza-dedikazioaren beste orduak batuko dira, 4.1 puntuan zehaztutako definizio eta arauen arabera.
- Ordu-kopuru osoa zati curriculumaren irakaskuntzako espezialitate bakoitzeko gutxiengoko ordu kopurua egingo da. Lortzen den emaitza ez bada zenbaki osoa eta hamarrenak 0,5 edo txikiagoak baldin badira, hamarren horiek 0,5eraino biribilduko dira. Hamarrenak 0,5 baino handiagoak baldin badira, hurrengo zenbaki osoraino jota biribilduko da.
- Horrela aterako den zenbakiak ikastetxeak espezialitate arruntetarako, gehienez, zenbat irakasle izango dituen adieraziko du. Kopuru horretan ondorengo arloetako irakasleak bakarrik gehitu ahal izango dira, beharrezkoa den kasuetan: Erlijioa, Hezkuntza-Orientabidea, Curriculum Aniztasuna, Zuzendaritzari Laguntzea eta Zereginen Ikaskuntza.

4.3.- Irakasleen kopurua espezialitateetan banatzea

Ikastetxeari dagozkion irakasleak funtzionamenduko lanpostuen zerrendako espezialitateen arabera banatzeko, era honetan jardungo da:

4.3.1.- Lehenbizi, 4.1 puntuan zehaztutako ordu-zama arrunta banatuko da, kasuan kasuko espezialitate bakoitzari arlo edo gai bakoitzeko orduak emanda, ondorengo arauen arabera:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasgaietan metatutako orduak dagozkien espezialitateei emango zaizkie, ondorengo taulen arabera:



a) DBHko lehen bi kurtsoetako orduak:

ARLOAK EDO GAIAK	MAISU/MAISTREN ESPEZIALITATEAK
Euskara eta Literatura	Euskara eta Euskal Literatura
Gaztelania eta Literatura	Gaztelania eta Literatura
Matematika	Matematika
Atzerriko hizkuntzak	Ingelesa, frantsesa edo alemana (dagokiona)
Gizarte Zientziak	Gizarte Zientziak
Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza
Teknologia	Teknologia
Plastika eta Ikus Hezkuntza	Plastika Hezkuntza
Musika	Musika
Informatika	Ez da espezialitate bati ere esleitu
Fisika eta Kimika	Natur Zientziak
Biologia eta Geologia	Natur Zientziak
Kultura klasikoa	Ez da espezialitate bati ere esleitu
Koruko Kantua	Musika
Musika eta instrumentuen tailerra	Musika
Matematikak eguneroko bizitzan.	Matematika
Matematikako aplikazioen tailerra	Matematika
Elikadura-tailerra	Natur Zientziak
Gorputza eta osasuna zaintzeko tailerra	Natur Zientziak
Ikus-entzunezkoen komunikazioko tailerra	Plastika Hezkuntza
Ondare eta herri-kulturako tailerra	Gizarte Zientziak
Ikerketa historiko-geografiako tailerra	Gizarte Zientziak
Ingurune sozio-kulturala ikertzeko tailerra	Gizarte Zientziak
Ipuinen tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Literatura
Ipuinen tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Dramatizazioko tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Literatura
Dramatizazioko tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Prentsako tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Literatura
Prentsako tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Dokumentu bidezko informazioa (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Literatura
Dokumentu bidezko informazioa (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Ondare zient-teknikoa aztertzeko tailerra	Teknologia
Asmakizun eta makinaren tailerra	Teknologia
Gorputz Adierazpena	Gorputz Hezkuntza
Astronomiako tailerra	Natur Zientziak
Ikerketa zientifikorako hurbilketa	Natur Zientziak
Beste hautazko batzuk	Ez dira espezialitate bati ere esleitu



Maisu-Maistren Kidegoari gordetako lanpostuak betetzeko ordu horiek beharrezkoak ez badira, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko espezialitateei emango zaizkie, ondorengo taularen arabera.

ARLOAK EDO GAIAK	BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOKO ESPEZIALITATEAK
Euskara eta Literatura	Euskara eta Euskal Literatura
Gaztelania eta Literatura	Gaztelania eta Literatura
Matematika	Matematika
Atzerriko hizkuntzak	Ingelesa, frantsesa edo alemana (dagokiona)
Gizarte Zientziak	Geografia eta Historia
Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza
Teknologia	Teknologia
Plastika eta Ikus Hezkuntza	Marrazketa
Musika	Musika
Informatika	Informatika
Fisika eta Kimika	Fisika eta Kimika
Biologia eta Geologia	Biologia eta Geologia
Kultura klasikoa	Latina
Koruko Kantua	Musika
Musika eta instrumentuen tailerra	Musika
Matematikak eguneroko bizitzan.	Matematika
Matematikako aplikazioen tailerra	Matematika
Elikadura-tailerra	Biologia eta Geologia
Gorputza eta osasuna zaintzeko tailerra	Biologia eta Geologia
Ikus-entzunezko komunikazioko tailerra	Marrazketa
Ondare eta herri-kulturako tailerra	Geografia eta Historia
Ikerketa historiko-geografiako tailerra	Geografia eta Historia
Ingurune sozio-kulturala ikertzeko tailerra	Geografia eta Historia
Ipuinen tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Literatura
Ipuinen tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Dramatizazioko tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Literatura
Dramatizazioko tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Prentsako tailerra (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Literatura
Prentsako tailerra (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Dokumentu bidezko informazioa (gaztelaniaz)	Gaztelania eta Literatura
Dokumentu bidezko informazioa (euskaraz)	Euskara eta Euskal Literatura
Ondare zient-teknikoa aztertzeko tailerra	Teknologia
Asmakizun eta makinaren tailerra	Teknologia
Gorputz Adierazpena	Gorputz Hezkuntza
Astronomiako tailerra	Fisika eta Kimika
Ikerketa zientifikorako hurbilketa	Fisika eta Kimika
Beste hautazko batzuk	Ez dira espezialitate bati ere esleitu



b) DBHko lau kurtsoetako orduak:

ARLOAK EDO GAIAK	BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOKO ESPEZIALITATEAK
Erljioa	Erljioa
Balio Etikoak	Filosofia

c) DBHko azken bi kurtsoetako orduak:

ARLOAK EDO GAIAK	BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOKO ESPEZIALITATEAK
Euskara eta Literatura	Euskara eta Euskal Literatura
Gaztelania eta Literatura	Gaztelania eta Literatura
Matematika	Matematika
Atzerriko hizkuntzak	Ingelesa, frantsesa edo alemana (dagokiona)
Gizarte Zientziak	Geografia eta Historia
Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza
Teknologia	Teknologia
Plastika eta Ikus Hezkuntza	Marrazketa
Musika	Musika
Filosofia	Filosofia
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (*)	1.: Informatika 2.: Teknologia
Fisika eta Kimika	Fisika eta Kimika
Lan-jarduerari aplikatutako zientziak	Fisika eta Kimika
Biologia eta Geologia	Biologia eta Geologia
Kultura zientifikoa	Biologia eta Geologia
Latina	Latina
Kultura klasikoa	Latina eta/edo grekoa (ikusi 2. oharra)
Ekonomia	Ekonomia
Ekintzailtza- eta enpresa-jardueren hastapena	1.: Ekonomia 2.: Laneko prestakuntza eta orientabidea. 3.: Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa
Arte eszenikoak eta dantza (gazteleraz) (*)	1.: Musika 2.: Gaztelania eta Literatura 3.: Euskara eta Euskal Literatura
Arte eszenikoak eta dantza (euskaraz) (*)	1.: Musika 2.: Euskara eta Euskal Literatura 3.: Gaztelania eta Literatura
Koruko Kantua	Musika
Musika eta instrumentuen tailerra	Musika
Matematikak eguneroko bizitzan.	Matematika
Matematikako aplikazioen tailerra	Matematika
Elikadura-tailerra	Biologia eta Geologia
Gorputza eta osasuna zaintzeko tailerra	Biologia eta Geologia
Ikus-entzunezko komunikazioko tailerra	Marrazketa
Ondare eta herri-kulturako tailerra	Geografia eta Historia
Ikerketa historiko-geografiako tailerra	Geografia eta Historia
Ingurune sozio-kulturala ikertzeko tailerra	Geografia eta Historia



ARLOAK EDO GAIAK	BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOKO ESPEZIALITATEAK
Ipuinen tailerra (gaztelaniaz) (*) Prentsako tailerra (gaztelaniaz) (*) Dramatizazioko tailerra (gaztelaniaz) (*) Dokumentu bidezko informazioa (gaztelaniaz) (*)	1.: Gaztelania eta Literatura 2.: Euskara eta Euskal Literatura
Ipuinen tailerra (euskaraz) (*) Prentsako tailerra (euskaraz) (*) Dramatizazioko tailerra (euskaraz) (*) Dokumentu bidezko informazioa (euskaraz) (*)	1.: Euskara eta Euskal Literatura 2.: Gaztelania eta Literatura
Ondare zient-teknihoa aztertzekeo tailerra	Teknologia
Asmakizun eta makinena tailerra	Teknologia
Gorputz Adierazpena	Gorputz Hezkuntza
Astronomiako tailerra	Fisika eta Kimika
Ikerketa zientifikorako hurbilketa (*)	1.: Fisika eta Kimika 2.: Biologia eta Geologia
Beste hautazko batzuk	Ez dira espezialitate bati ere esleitu

(*) ikurra duten ikasgaietan, kasuan kasuko orduak lehenbizi aipatzen den espezialitateari emango zaizkio, ikastetxean espezialitate horretako irakasleren bat baldin badago; baina ikastetxean ez baldin badago espezialitate horretako irakaslerik eta bai bigarren espezialitatekoren bat, orduan bigarrenari emango zaizkio. Eta bigarreneko irakaslerik ez badago eta hirugarrenekoa bai, orduan hirugarrenari emango zaizkio, eta horrela hurrenez hurren.

1. OHARRA: Irizpide orokor gisa, Natur Zientzietako orduak erdi eta erdi banatuko dira Fisika eta Kimika eta Biologia eta Geografia espezialitateen artean. Dena den, ikastetxeren batean ez baldin badago espezialitate horietakoren batean behin betiko destinoa duen irakaslerik, Natur Zientzietako ordu guztiak besteari atxiki ahal izango zaizkio.

2. OHARRA: Irizpide orokor gisa, Kultura Klasikoko orduak erdi eta erdi banatuko dira Latin eta Grekoko espezialitateen artean. Dena den, ikastetxeren batean ez baldin badago espezialitate horietakoren batean behin betiko destinoa duen irakaslerik, Kultura Klasikoko ordu guztiak besteari atxiki ahal izango zaizkio.

Batxilergoan, ikasgaietan metatutako orduak dagozkien espezialitateei emango zaizkie, ondorengo taularen arabera:

GAIK	BEREZITASUNAK
Alemana	Alemana
Frantsesa	Frantsesa
Ingelesa	Ingelesa
Atzerriko 2. Hizkuntza	Alemana, Ingelesa edo frantsesa (dagokiona)
Biologia eta Geologia	Biologia eta Geologia
Biologia	Biologia eta Geologia
Geologia	Biologia eta Geologia
Lurraren eta Inguramenaren Zientziak	Biologia eta Geologia
Giza Fisiologia eta Anatomia	Biologia eta Geologia
Anatomia aplikatua.	Biologia eta Geologia



GAIAK	BEREZITASUNAK
Marrazketa Artistikoa	Marrazketa
Marrazketa Teknikoa	Marrazketa
Artearen Oinarriak	Marrazketa
Diseinua	Marrazketa
Bolumena	Marrazketa
Ordenagailuz lagundutako Marraz. eta Dis.	Marrazketa
Pintura	Marrazketa
Argazkigintza	Marrazketa
Ikus-entzunezko kultura	Ez da espezialitate bati ere esleitu
Ekonomia	Ekonomia
Enpresa Ekonomia	Ekonomia
Kultura zientifikoa	Erdi eta erdi banatuko dira Fisika eta Kimikako eta Biologia eta Geologiako espezialitateen artean
Zuzenbidea	Ez da espezialitate bati ere esleitu
Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza
Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna	Gorputz Hezkuntza
Gorputz Adierazpena	Gorputz Hezkuntza
Euskara eta Literatura	Euskara eta Euskal Literatura
Literatura unibertsala Arte eszenikoak XX. mendeko Euskal Literatura eta Literatura Espainiarra	Euskara eta Euskal Literatura eta Gaztelania eta Literatura
Filosofia	Filosofia
Filosofiaren Historia	Filosofia
Gizarte Antropologia	Filosofia
Erlijioa	Erlijioa
Fisika eta Kimika	Fisika eta Kimika
Fisika	Fisika eta Kimika
Kimika	Fisika eta Kimika
Laborategiko Teknikak	Fisika eta Kimika
Mekanika (*)	1.: Fisika eta Kimika 2.: Teknologia 3.: Antol. eta fabrikazio mekanikoko proiekt.
Geografia	Geografia eta Historia
Espainiako Historia	Geografia eta Historia
Mundu Garaikidearen Historia	Geografia eta Historia
Artearen Historia (*)	1.: Geografia eta Historia 2.: Marrazketa
Euskal Herriaren Historia	Geografia eta Historia
Grekoa	Grekoa
Latina	Latina
Gaztelania eta Literatura	Gaztelania eta Literatura



GAIAK	BEREZITASUNAK
Matematika	Matematika
Matematika, gizarte zientziak	Matematika
Algebra eta Kalkulua	Matematika
Musikaren Analisia	Musika
Musikaren eta dantzaren historia	Musika
Musika-hizkuntza eta -praktika.	Musika
Musika-informatika	Musika
Industria-teknologia	Teknologia
Irudia eta Soinua	Teknologia
Administ. eta kudeaketa oinarriak (*)	1.: Enpresen administrazioa 2. Ekonomia
Elektronika	Erdi eta erdi banatuko dira Fisika eta Kimikako eta Teknologiako espezialitateen artean
Elektroteknia	Erdi eta erdi banatuko dira Fisika eta Kimikako eta Teknologiako espezialitateen artean
Inform. eta komunikazioaren tekn. (*)	1.: Informatika 2.: Teknologia
Psikologia	Filosofia

(*) ikurra duten ikasgaietan, kasuan kasuko orduak lehenbizi aipatzen den espezialitateari emango zaizkio, ikastetxean espezialitate horretako irakasleren bat baldin badago; baina ikastetxean ez baldin badago espezialitate horretako irakaslerik eta bai bigarren espezialitatekoren bat, orduan bigarrenari emango zaizkio. Eta bigarreneko irakaslerik ez badago eta hirugarrenekoa bai, orduan hirugarrenari emango zaizkio, eta horrela hurrenez hurren.

Heziketa Zikloetan, moduluetan pilatzen diren orduak dagokien espezialitateei batuko zaizkie, horrela ezarri baita ebazpen honetako I. eta II. eranskinetan.

4.3.2.- DBHko eta Batxilergoko espezialitate bakoitzari esleitu ahal zaion ordu kopuru metagarria (euskarazko eta gaztelaniazko orduak batzea) kalkulatu ondoren, curriculumaren irakaskuntzako gutxieneko orduak baldin badaude, edo gainontzekoa 12 ordukoa edo gehiago denean, lanpostu bat esleituko zaio espezialitate bakoitzari, betiere gainontzeko ordu horiek espezialitate baliokideetako orduekin osatzerik baldin badago. HE1eko eta HE2ko lanpostuetan ateratzen diren lanpostuak banatzeko, 4.5. puntuan xedatutakoaren arabera jokatu da.

4.3.3. Lanbide Heziketako espezialitateetan, espezialitate eta hizkuntza-eskakizun bakoitzak eduki beharreko ordu kopurua ezarri ostean, plaza bat esleituko da espezialitatearen gutxieneko ordu kopuru bakoitzeko edo 12 orduetik gorako hondar-kopuru bakoitzeko; azken kasu horretan, alabaina, baldintza bat bete behar da: hondar-kopuru hori ezinbestean izan behar da lanbide-arlo bereko gaitasun-atale lotuta dauden lanbide-moduluetan irakasteko diren espezialitateen orduekin osatzeko modukoa.



4.3.4.-Latin eta Grekoko orduak osatutako lanpostuek “Kultura Klasiko”ko lanpostuak izena hartuko dute, urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretuak hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera.

4.3.5.- Gainontzeko plazak, espezialitate arruntetan ikastetxeak duen irakasle kopuru osora iritsi arte, 4.2. puntuak zehaztutako kopurua hain zuzen ere, Ebazpen honen hurrengo atalean xedatutakoaren arabera definituko dira.

4.4.- Gainontzeko lanpostuen definizioa

Gainontzeko lanpostuak nola moldatu ikastetxeek erabaki beharko dute, baina garaiz egin beharko dute hori, lanpostu horiek ikasturte hasierako esleipenean behar bezala definituta eta moldatuta egon daitezen.

Lanpostu horiek moldatzeko eskumena ikastetxeko zuzendaritza-taldeak izango du, kasuan kasuko didaktikako departamentuen iritzia zein den jakin ostean. Dena den, jarraitu beharreko irizpideetako bat koherentzia pedagogiko ahalik eta handienarekin jardutearena izango da, eta lanpostuak moldatzerakoan, gaiak ahalik eta berdinenak izango dira, eta gai horiek, gainera, curriculumari dagokionez, ahalik eta gertuen egon beharko dute.

Lanpostuen osaeran espezialitate bat baino gehiagoko gaiak sartzen baldin badira, lanpostu horren definizioan garbi adierazi beharko da lanpostua zein espezialitatek edo gaik osatzen duten, nahiz eta lanpostua espezialitate jakin bati atxikita egon, ondorengo arauak jarraituta:

- a) Orokorrean, lanpostua osatzen duten espezialitateen artetik ordu gehien duen espezialitateari emango zaio lanpostua, ondorengo apartatuetako salbuespenetan izan ezik.
- b) Espezialitate bakoitzak zenbat ordu duen alde batera utzita, lanpostu bat osatzen dutenen artean atzerriko hizkuntza bat ere ageri baldin bada, lanpostua beti espezialitate horri emango zaio. Atzerriko hizkuntza bi edo gehiagotako orduak osatzen baldin badute lanpostua, ordu gehien duen hizkuntzari emango zaio lanpostua.
- c) Espezialitate bakoitzak zenbat ordu duen alde batera utzita, lanpostu bat osatzen dutenen artean Grekoa ageri baldin bada, lanpostua beti espezialitate horri emango zaio, Latina ere baduen kasuetan izan ezik; kasu horretan lanpostua Kultura Klasikokoa izango da.
- d) Espezialitate bakoitzak zenbat ordu duen alde batera utzita, lanpostu bat osatzen dutenen artean latina ageri baldin bada, lanpostua beti espezialitate horri emango zaio, grekera ere baduen kasuetan izan ezik; kasu horretan, c) puntuak esaten den moduan, lanpostua kultura klasikokoa izango da.
- e) Lanpostu bat atzerriko hizkuntza batez eta Latina edota Grekoa espezialitateko orduekin osatuta egongo balitz, ordu kopuru gehien dituen espezialitateari lotuko da plaza hori.
- f) Espezialitate bakoitzak zenbat ordu duen alde batera utzita, lanpostu bat osatzen dutenen artean Hezkuntza Zikloetako moduluak ageri baldin badira, lanpostua beti espezialitate horri emateak lehentasuna izango du.



4.5.- Plazen hizkuntza-eskakizuna ezartzea

4.5.1. DBH eta Batxilergoko irakaskuntzei dagozkien espezialitateen plazak

Espezialitate bakoitzak zenbateko ordu-zama izango duen erabaki ostean, ordu horiek euskara eta gaztelaniaren artean banatuko dira, ondorengo arauekin bat:

- a) D ereduko orduak euskaraz izango dira.
- b) A ereduko orduak gaztelaniaz izango dira, Euskara eta Literatura ikasgaiko orduak izan ezik, horiek euskaraz emango baitira.
- c) B ereduko orduak hizkuntza bakoitzari banatzeari dagokionez, ordu horiek 2019-2020 ikasturtean zein hizkuntzatan emango diren kontuan izanda banatuko dira.

Hizkuntza bakoitzean guztira zenbat ordu diren jakin ostean, lanpostuen hizkuntza eskakizuna urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuan xedatutakoaren arabera emango da; Dekretu horrek hizkuntza-eskakizunen martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua aldatu zuen. Horren ondorioz:

- a) Ordu guztiak gaztelaniakoak dituzten lanpostuak 1. hizkuntza eskakizunekoak izango dira, eta ez dute derrigortasunezko eperik izango.

Beraz, gaztelaniako espezialitate batean curriculumaren irakaskuntzako gutxieneko orduak edo gehiago baldin badaude, espezialitate horretako 1HEko lanpostu bat (eperik gabekoa) sortuko da, nahiz eta ikastetxeak lanpostu hori 2HEekoa izateko eskatu, edo ordu horiek beste lanpostu batzuetan sartzeko eskatu, euskarazko orduekin nahastuta, eta horrela lanpostu guztiak 2HEekoak izan. Azkenengo aukera hori baimentzeko, ondorengo bi baldintzak bete beharko dira, aldi berean:

1.- Behin-betiko destinoa duen irakaslerik ez egotea eperik gabeko 1HEko lanpostu horretan. Era horretako irakasleren bat baldin badago, lanpostua espezialitate eta hizkuntza eskakizun horrekin aterako da, nahiz eta eragiten dion irakaslea ikasturte horretan ez egon ikastetxean edozein arrazoi dela eta (Irale, zerbitzu eginkizunak...), edo ikastetxean egonda ere, beste eginkizun batzuk izan behar baditu (curriculum-aniztasuna, askotariko proiektuak, beste espezialitate bateko eskolak ematea, e.a.).

2.- Guztiz beharrezkoa izatea ordu horiek erabiltzea (edo ordu horien zati bat) ikastetxean behin-betiko destinoa duen irakasle baten 2HEko lanpostua mantentzeko.

- b) Euskarako orduak baino izango ez dituzten lanpostuak 2HEekoak izango dira (epea amaituta dutenak) d) lerroaldian aipatzen diren salbuespenetan izan ezik.

- c) Euskarako eta gaztelaniako orduak dituzten lanpostuak 2HEekoak izango dira (epea amaituta dutenak), d) apartatuan aipatzen diren salbuespenetan izan ezik.



d) Urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian esaten denarekin bat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baino irakasten ez duten ikastetxeetako gaztelania eta atzerriko hizkuntzako lanpostuak epea amaituta duten 1HEeko lanpostuak izango dira, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte, aldi berean:

1.-Lanpostu horiek epea beteta duten 1HEekoak izatea otsailaren 12ko 20/2019 Dekretuaren bidez onartutako lanpostuen zerrendaren arabera (EHAA, 2019-02-20).

2.- Lanpostu horiek behin-betiko destinoa duen baina oraindik 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzerik lortu ez duen irakasle batek betetakoak izatea.

4.5.2. Lanbide Heziketako irakaskuntzei dagozkien espezialitateen plazak

Abuztuaren 30eko 190/2011 Dekretuan xedatzen diren irizpideak ezarriz zehaztuko da plaza horien hizkuntza-eskakizuna. Dekretu horren bidez, Lanbide Heziketako irakasle-lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak zehazten dira.

Dekretu horren 8. artikuluan xedatutakoa betez, Hezkuntza Sailak egindako plangintzaren arabera ezarriko dira plaza horietako irakasle-lanpostuetako hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin ahal izan ditzaten beren ikasketak.

Aurrekoa aplikatuz, honela zehaztuko da plaza horien hizkuntza-eskakizuna:

a) Orduen zati bat edo ordu guztiak euskaraz emango dituzten plazetan 2. hizkuntza-eskakizuna indarrean edukitzea eskatuko da.

b) Ordu guztiak gaztelaniaz emango dituzten plazetan, behin betiko destinoa plaza horixe duten eta 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duten irakasleen kasuan, 1. hizkuntza-eskakizuna edukitzea eskatuko da, derrigortasun-datarik gabe.

c) Ordu guztiak gaztelaniaz emango dituzten plazetan, plaza horretan behin betiko destinoa duen irakasle batek betetzen ez badu, eta, Hezkuntza Sailaren plangintzarekin bat eginez, hurrengo bi ikasturteetan (2019-2020, 2020-2021) gaztelaniaz eskaintzen jarraituko diren plazak badira, 1. hizkuntza-eskakizuna edukitzea eskatuko da, derrigortasun-datarik gabe.

d) Ordu guztiak gaztelaniaz emango dituzten plazetan, plaza horretan behin betiko destinoa duen irakasle batek betetzen ez badu, eta, Hezkuntza Sailaren plangintzarekin bat eginez, hurrengo bi ikasturteetan (2019-2020, 2020-2021) euskaraz eskainiko diren plazak badira, 2. hizkuntza-eskakizuna indarrean edukitzea eskatuko da.



4.6.- Lanpostu batzuetarako eskatuko den ingeleseko edo/eta frantseseko titulazioa.

Irakasgaiak ingelesez edo frantsesez ematen dituzten ikastetxeetan, orduren bat hizkuntza horietan eman behar duten lanpostuei, dagokien espezialitateaz eta hizkuntza-eskakizunaz gain, honako betekizun hau ezarriko zaie: maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren 2. artikuluan xedatutako titulu, gaikuntza edo ziurtagiri bat egiaztatzea. Dekretu horrek, atzerriko hizkuntzen titulu eta ziurtagiriei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunaren betekizunak ezartzen ditu.

5.- Hezkuntza-Orientabide espezialitateko lanpostuak

5.1.- Hezkuntza-Orientabideko lanpostu-kopurua zehaztea

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta/edo Batxilergoa zuzeneko irakaskuntza gisa duten ikastetxe publiko guztietan, Hezkuntza-Orientabide espezialitateko lanpostu bat egongo da.

b) Hezkuntza-Orientabide espezialitateko beste lanpostu bat ere izango dute aurreko atalean aipatzen diren ikastetxeek, baldin eta ondorengo baldintzetakoren bat betetzen badute:

– 700 ikasle baino gehiago izatea.

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta/edo Batxilergoko irakaskuntza bi udalerritan ematea, ikastetxeko kokagune bien arteko distantzia 500 metrokoa baino gutxiagoa izan ezik.

c) Ez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ez Batxilergoa ematen ez duten ikastetxeetan Hezkuntza-Orientabide espezialitateko lanpostuak mantenduko dira, hain zuzen ere otsailaren 12ko 20/2019 Dekretuaren bidez onartutako lanpostuen zerrendaren arabera (EHAA, 2019-02-20). Ez da espezialitate honetako beste lanposturik gehituko ikastetxe horietan

5.2.- Hezkuntza-Orientabideko lanpostuen hizkuntza-eskakizuna zehaztea

Urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuko 4. artikuluan xedatutakoaz bat (Dekretu horrek martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua, hizkuntza-eskakizunei buruzkoa, aldatu zuen), Hezkuntza-Orientabide espezialitateko lanpostuen hizkuntza-eskakizuna ondorengo irizpideen arabera zehaztuko da:

a) Irakasleak A ereduko ikasleez baino ez baldin badu arduratu behar, 1. hizkuntza eskakizuneko lanpostuak izango dira, derrigortasun-eperik gabekoak.

b) Irakasleak D ereduko talderen bateko ikasleez ere arduratu behar baldin badu, 2. hizkuntza eskakizuneko lanpostuak izango dira, derrigortasun-epeta dutenak.



- c) Irakasleak B ereduiko talderen bateko ikasleez ere arduratu behar baldin badu, eta ez badu D ereduiko ikasleez arduratu behar, 1. hizkuntza eskakizuneko lanpostuak izango dira, derrigortasun-epea beteta dutenak.

6.- Curriculum Aniztasuneko espezialitateetako lanpostuak

6.1.- Curriculum Aniztasuneko lanpostu-kopurua zehaztea

2019-2020 ikasturterako aurreikusitako Curriculum Aniztasuneko talde bakoitzeko, hizkuntza eta gizarte arloko lanpostu bat eta zientzia eta teknologiaren arloko beste bat sortuko dira.

Ikastetxeko beste espezialitateren bateko irakasle batek beteko duela aurreikusten bada ere, lanpostua Curriculum Aniztasuneko plaza izango da. Ez da agertuko aipatutako irakasleak duen espezialitatean.

6.2.- Curriculum Aniztasuneko lanpostuen hizkuntza-eskakizuna zehaztea

Urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuko 4. artikuluan xedatutakoaz bat (Dekretu horrek martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua, hizkuntza-eskakizunei buruzkoa, aldatu zuen), Curriculum Aniztasuneko lanpostuen hizkuntza-eskakizuna ondorengo irizpideen arabera zehaztuko da:

- a) Irakasleak A ereduiko ikasleez baino ez baldin badu arduratu behar, 1 hizkuntza eskakizuneko lanpostuak izango dira, derrigortasun-eperik gabekoak.
- b) Irakasleak D ereduiko ikasleez baino ez baldin badu arduratu behar, 2. hizkuntza eskakizuneko lanpostuak izango dira, berehalako derrigortasun-epea dutenak (epea betetakoak).
- c) Irakasleak beste batzuen artean B ereduiko ikasleez ere arduratu behar badu, irakaslearen hizkuntza-eskakizuna arlo bakoitzean, zientzia eta teknikakoan eta hizkuntza eta gizarte arlokoan, erabilitako hizkuntzara egokituko da.

7.- Zereginen Ikaskuntzarako Gela izeneko espezialitaterako lanpostuak.

7.1.- Zereginen Ikaskuntzarako Gela izeneko espezialitaterako lanpostu-kopurua zehaztea.

2019-2020 ikasturtean lanean izango direla aurreikusitako Zereginen Ikaskuntzarako Gela bakoitzeko, espezialitate horretako lanpostu bat egongo da, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegotik beteko da lanpostu hori.



Lanpostua Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko espezialitate zehatz bati esleituko zaio, Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzako Lurralde Buruak horrela erabakitzen duenean. Aldez aurretik Ikastetxeko zuzendaritzak eskaera egingo du eta ikastetxeari dagokion Berritzeguneak eskaera onartzearen egokitasunari buruzko txostena eman behar izango du. Osterantzean, lanpostua Zereginen Ikaskuntza plaza bezala besterik ez da agertuko.

7.2.- Zereginen Ikaskuntzarako Gelako lanpostuen hizkuntza-eskakizuna zehaztea.

Zereginen Ikaskuntzarako Gelako lanpostuek 1. Hizkuntza-eskakizuna izango dute, derrigortasun-eperik gabe, baldin eta irakasleak A ereduko ikasleekin bakarrik egin behar badu lana. B eta/edo D ereduko ikasleekin ere egin behar badu lana, lanpostua 2. hizkuntza eskakizuneko izango da, epea beteta duena.

8.- Zuzendaritzari Laguntza Emateko lanpostuak.

Zuzendaritzari laguntza emateko lanpostu guztiak mantenduko dira, lan-legepeko langileentzat gordetakoak, hain zuzen ere otsailaren 12ko 20/2019 Dekretuaren bidez onartutako lanpostuen zerrendaren arabera (EHAA, 2019-02-20), baina baldin eta behin-betiko destinoa duen irakasle batek beteta jarraitzen badu lanpostu horrek.

9.- Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuko lanpostuak

UHEIko lanpostu guztiak bereziak izango dira, eta berariazko baldintzak eskatuko dira lanpostu horiek betetzeko, gaur egun horrela eskatzen duelako urrutiko edozein irakaskuntzak. Hain zuzen ere eskatuko da irakaskuntzan esperientzia eta ondokoa menderatzea: teleprestakuntza plataformetan ikasturteak administratzea eta tutorizatzea, eta teleprestakuntza plataformetarako edukien sortzea.

Baina, 1/2013 Legearen arabera, UHEIn integratuko badira UHOIetan eta UBIEtan behin betiko lanpostua duten irakasleak, UHEIko lanpostu batzuk ez dira berariazko lanpostuak izango, eta ez dituzte bete beharko aipaturiko baldintza berariazkoak, irakasle horiek lanpostu horietan atxikitzerik izan dezaten. Baina lanpostuok desagertzen joango dira, eta, desagertu ahala, lanpostu bereziek beteko dute haien lekua.

10.- Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratuko lanpostuak.

UHEIko lanpostu guztiak bereziak izango dira, eta berariazko baldintzak eskatuko dira lanpostu horiek betetzeko, gaur egun horrela eskatzen duelako urrutiko edozein irakaskuntzak. Hain zuzen ere eskatuko da irakaskuntzan esperientzia eta ondokoa menderatzea: teleprestakuntza plataformetan ikasturteak administratzea eta tutorizatzea, eta teleprestakuntza plataformetarako edukien sortzea.



11.- Eibarko Egoitza-Zentroko lanpostuak

Eibarko Egoitza-Zentroko bi lanpostuak mantenduko dira, hain zuzen ere otsailaren 12ko 20/2019 Dekretuan agertzen direnak, (EHAA, 2019-02-20).

12.- Lanpostua funtzionarioek edo lan-legepeko langileek betetzeko irizpideak

Ikastetxeak ematen duen edozein espezialitatetan, lanpostua funtzionarioari edo lan-legepeko langileari emateko lehenespena ondorengoa izango da:

1.- Ikastetxean espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horretako lan-legepeko langile finkoren bat baldin badago, lanpostua lan-legepeko langileentzat izango da.

2.- Espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horretako behin betiko funtzionarioen bat baldin badago, hain zuzen ere Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako irakasle berezien kidegokoa, lanpostua kidego horretako norbaitek bete beharko du.

3.- Gainontzeko kasuetan, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko edo Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegokoen bete beharko dituzte lanpostuak, kasuan kasuko espezialitatearen arabera.

13.- EHAAn argitaratuko den LZ onartzeko Dekretuan sartuko diren lanpostuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako lanpostuen zerrenda argitaratuko den Dekretuan, Ebazpen honek xedatutako irizpideen aplikatzeak lortutako lanaldi osoko lanpostuak argitaratuko dira, baina inola ere Dekretu horretan sartutako lanpostu kopuruak ezin izango du aurrekontuan ezarritako kupoa gainditu.

14.- Irakaskuntzak banatu edo integratzeko prozesu baten ondorioz sortutako lanpostuak.

Ikastetxe batean irakaskuntza batzuk kentzen badira eta gero beste ikastetxe batean integratu, orduan irakaskuntza horietako lanpostuak ikastetxe igorlearen lanpostu-zerrendatik kenduko dira eta ikastetxe hartzailearen lanpostu-zerrendan integratuko. Lanpostuak zehazteko, irizpide hauek aplikatuko dira:

1.- Zehaztu egingo da zenbat ikasle matrikulatu diren 2019-2020 ikasturtean ikastetxe igorlean banatutako irakaskuntzetan eta zenbat ikasletako taldeak sortuko diren ikastetxe hartzailean ikasgai bakoitzean.

2.- Zehaztu egingo da zenbat curriculumaren irakaskuntzako ordu izango dituzten talde horiek.

EUSKO JAURLARITZA**GOBIERNO VASCO**

3.- Espezialitate bakoitzean ikastetxe igorletik kendu eta ikastetxe hartzailean lanpostu bat integratuko da espezialitate horretako curriculumaren irakaskuntzako orduko edo gainerako 12 ordu edo gehiagoko ordu-multzo bakoitzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 19a

Eugenio Jimenez Ibañez

Nicolás Sagarzazu Alzua.

IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN
ZUZENDARIA

PLANGINTZA ETA ANTOLAKETAKO
ZUZENDARIA